

1978 - V - 26

Bergaran, U.N.E.D.-ko geletan, 1978ko Maiatzaren 26an, arratsaldeko 4-retan, bildu dira: L. Villasante buru eta J. Haritschelhar buru ordezkoko direla, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, L. Mitxelena, J. San Martín eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, B. Gandiaga, J. Intxausti, I. Laspiur, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, L. M. Mujika, J. Oregi, I. Sarasola, J. M. Torrealdai, P. Xarriton eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaileak.

Davant, Hiriart-Urruty, Larre, Larzabal, Lojendio eta Ugalde jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Martxoko batzar agiria onartu da.

#### a) HARREMANAK:

Gilen Larrañaga euskaltzain laguntzailearen hil berria eman du euskaltzain buruak.

Olite-Erriberriko udalari eskerrak ematea, Erdi-Aroko liburu baten azalean hebraierazko testu bat, Rikardo Zierbidek aurkituaren kopia bat igorri digulako. Guk geuk, bertatik ateratako beste kopia bat igorri diogu Jerusalem-eko Hebraiaren Akademiara.

“Andima Ibiñagabeitia saria 1978”-ren berri eman da, sariketaren oinarriak zabalduaz.

Bonifazio Etxegaray euskaltzain zenari, bere ehun urte betetzeaz Zumaian maiatzaren 29tik ekainaren 4ra bitartean eratzen dituzten gorazarrezko hitzaldi eta jaialdien berri eman da.

Hartu diren liburuen zerrenda irakurri da. Eta, idazkariak, argitara berri duen *Gogoz* liburuak zabaldu ditu batzarkideen artean.

Ekainaren 3an, Donostian, Kar mele Esnal euskaltzaindiko laguntzaile eta anitz urtez ikastoletako andereño denari omenaldia eskainiko zaio, ikastola erakundearen partetik, eta gure zorionak bialtzea erabaki da.

Instituetako euskara arazoaz mintzatu da. Borondatez euskara ikasteko eskubidea datorren ikastarotik kendua izango omen. Puntu honetaz, idazkariak, erregeagana zuzenean joateko asmoa agertzen du, 573/1976-ko otsaileko Dekretuaren onhartuaren eta Moncloa-ko erabakien 4. kapituluaren 3garren partearen aurkakoa denez. Bestalde, Mitxelena Gasteizen geldituko bada, han katedrak sortu beharra dago eta, eta bide batez arazo biak eramatea komeni dela. Honegatik, hurrats batzuk emanak dituela Erregearengana heltzeko bideak irekitzeaz.

Arabako Foru Diputazioko Lehendakariei eskerrak ematea erabaki da E. Knörr-en sarrera hitzaldirako eman zigun laguntzagarik.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Goizeko hamaika t'erdietan Euskaltzaindikoez gainera, Sebastian Agirre, J. Martin Elexpuru, Jerardo Elorza, Fernando Etxeberria, Jesus M.<sup>a</sup> Larrazabal bildu dira, irailean Bergaran egingo ditugun batzarretarako laguntzaileak direnez.

Euskaltzainburuak irailean egiteko gareen Bergarako Biltzarren xedeak agertu ditu: Luis Elizalderen omenez eta euskara idatziaren batasuna gai hartuz, Arantzazun 1968an eta geroztik eman diren batasun arauak aztertzeaz eta birrikusteaz, ortografia hauziak bereziki, eta azkenik batzarrerako deian gomiteak egitez.

Ondotik, antolakizun batzordearen azalpenak egin ditu, bertako idazkari izendatu zen J. L. Lizundiak.

Soziologia eta Estadistika batzordearenak, bertako idazkari den Joseba Intxaustik.

Hizkuntza batzordearena J. A. Letamendiak, zenbait txostenen berri emanaz: X. Kintanak; idaztarauak; L. M. Mujika fonemaz; Mikel Zaratek, bizkaieratik batura, eta I. Sarasolak...

Biltzarrerako presupuestoaz hitz egin du J. J. Zearretak.

Eta, azkenik, zenbait elkarrizketaren ondoren, Biltzarreko oinarrizko erregelak onhartu dira.

d) ZULOAGAREN MARRAZKIAZ:

J. San Martinek argitasunezko adierazpenak agertu ditu. Marrazkia Euskaltzaindiko bulegoan ikatzez eta esku onez egina eta Zuloagaren sinaduraz zegoela. Baina, ez zela Inazio Zuloaga berberak izenpetua eta zalantzetatik irteteko egin zuen azterketaz argitu ahal izan duela "Doña Purita" deitu erretratuaren marrazkia dela.

A. Irigoyenek beste zenbait argitasun eman ditu. Marrazki hori berberak aurkitu zuela R. M. Azkue zenaren paperen artean eta markuan sarturik jarri zuela.

e) IRAKURTZEN ARI NAIZEN AZKEN POESIAZ:

B. Gandiagaren txostena. Bere poesigintzan eta batez ere "Uda batez Madrilen idazterakoan, zenbait gauzatan aurkitu izan duen hitz egokien faltaz mintzatu da, gai batzutarako euskarak duen ahulezia agertuz. Bere agerpen poetikoan, *Natur Zientziak* liburua eta teknologiako zenbait lan goraipatzen ditu, gure hizkuntzari ahalmena ematera datozenez.

## f) EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURAREN LEKUKOAK:

L. Mitxelena-ren txostena. Hasteko, ez deritzo ondo gure artean inoiz erabili izan den "Euskal klasikoen" izena, eta hobeto iruditzen zaio leku-koak, euskara eta euskal literaturaren lekukoak, klasiko deitzezorik urri dugunez eta beste obra zahar batzuk baliatu beharrez. Ondorean, zenbait eritzi agertu ditu obra zaharrak berriz argitaratzeaz, zer argitara, nola eta nork, puntuz puntu adieraziaz.

J. M. Satrustegik, "Principe de Viana" Mintegiaren bidez Lizarraga-ren textoak argitaratzeko Nafarroan duten aukera agertzen du.

Mugalde argitaldarikoez dituzten asmoen berri eman da, zenbait argitalpen salgai jartzeaz, eskuartearen beharrezko direnak eta lehenagoko argitalpenen bat dagoenez edo inoiz oraingo grafiaz jarriaz, aukeraren arabera.

Euskaltzaindiak, bere aldetik egin beharrezko duenerako, batzorde bat izendatzea erabaki da, jaun hauek osatzen dutelarik: L. Mitxelena, P. Lafitte, L. Villasante, J. M. Satrustegi, L. Akesolo, N. Alzola eta Jean Haritschelhar.

## g) NORBERT TAUER EUSKALTZAIN OHOREZKOAREN AGURRA:

Idazkariak, iragan astean Pragan izan zenez, Norbert Tauer Euskaltzain ohorezkoaren agurra dakar, Euskaltzaindiko guztiei goraintziak eskainiz eta *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia* Hezkuntza Ministerioak argitaratuagatik eskerrik beroenak agertzea agindu ziola. Tauer jaunak ekainaren 6an beteko ditu 80 urte eta guztion zorionak merezi dituenek, bakoitzak bere aldetik idazteko, haren helbidea erakutsi da: Norbert Tauer. Vinohradská, 126. CS-13000 PRAGA-3 (Tchécoslovaquie).

Ohi den otoi-tzarekin bukatu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN